



**Euskal Herriko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordean 2025eko urriaren 10ean hartutako erabakia.**

Adierazitako eguneko bileran, Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeak honakoak erabaki zituen:

**Bigarren puntua.**

Getxoko Udalaren Herritarren Segurtasun Arloko zinegotzi andereak 2025eko uztailaren 14an sinatutako idazkia jaso dela adierazi nahi dugu. Idazki hori Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailaren Kabinete eta Komunikazio zuzendariak igorrita heldu zaigu. Halaber, Batzorde honetako lehendakariak 2025eko urriaren 6an jaso zuela adierazi zuen. Honenbestez, honako erabaki hau hartu dugu:

**Erabakia:**

"Getxoko Udalaren Herritarren Segurtasun Arloko zinegotziak 2025eko uztailaren 14an bidalitako jakinarazpena jaso dugu. Eusko Jaurlaritzako Segurtasun sailburuari zuzendutako idazki horretan, 2025eko uztailaren 1ean bi udaltzainek burututako ekintzaren berri eman nahi dio Udalak Euskal Autonomia Erkidegoko Poliziaren Kontrol eta Gardentasun Batzordeari. Gertaerak Getxoko Santa Eugenia kalean izan ziren, J-C E.Q. jauna kalean atxilotu zutenean. Testuaren igorleak adierazi duenez, "Jarduera horren tarte bat sare sozialetan eta komunikabideetan zabaldu dutenez gero, eragina izan dezake herritarrek udaltzainengan duten konfiantza". Era berean, jakinarazpen horretan azpimarratu dutenez, "Getxoko Udalean ez dugu jaso arestiko polizia-jarduera horren inguruan aurkeztutako inolako kexa edo erreklamazio formalik".

Batzordeak honako erabaki hau hartu du, Euskal Herriko Poliziari buruzko Legearen Testu

**Acuerdo adoptado en la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, el 10 de octubre de 2025.**

En la reunión de la fecha indicada, por la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco, se decidió:

**Punto Segundo.**

Se da cuenta de la recepción del escrito de fecha 14 de julio de 2025, suscrito por la Sra. Concejala del Área de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Getxo, que se nos ha remitido por el Director de Gabinete y Comunicación del Departamento de Seguridad del Gobierno Vasco y del acuse de recibo de dicha remisión efectuada por la presidencia de esta Comisión con fecha de 6 de octubre de 2025. Se adopta el siguiente

**Acuerdo:**

"Recibida la comunicación, de fecha de 14 de julio de 2025, remitida por la Sra. Concejala del Área de Seguridad Ciudadana del Ayuntamiento de Getxo. En escrito dirigido al Sr. Consejero de Seguridad del Gobierno Vasco, la autoridad municipal pone en conocimiento de la Comisión de Control y Transparencia de la Policía del País Vasco la actuación policial desarrollada por dos agentes de la Policía Local el pasado día 1 de julio 2025 en la calle Santa Eugenia de dicho municipio, en el curso de la detención en la vía pública de D. J-C E.Q. Señala la remitente que "Parte de dicha actuación ha sido objeto de difusión en las redes sociales y medios de comunicación, pudiendo tener impacto en la confianza de la ciudadanía en la Policía Local". Se subraya, así mismo, en la comunicación que "en el Ayuntamiento de Getxo, no constan quejas ni reclamaciones formales presentadas en relación con la actuación policial referida".

Por la Comisión, en ejercicio de la atribución conferida por el art. 17.2.a) del Texto



Bateginaren 17.2.a) artikuluan esleitutako eskumena egikaritzuz:

Refundido de la Ley de Policía del País Vasco, se acuerda:

1º. Agindutakoa onartzea eta jakinarazitako gertakarian Getxoko Udaltzaingoak izandako jokabidea edo ekintza aztertzeari ekitea.

“1º Aceptar el encargo y proceder al estudio sobre la conducta o práctica en el seno de la Policía Local de Getxo desarrollada en el incidente comunicado.

2º. Bidalitako dokumentazioari dagokionez, 1682/2025 zenbakidun polizia-atestatuaren kopia bat bidaltzeko eskatu nahi diogu Getxoko Udalaren alkate andereari, aurrekoari CC7876278 zenbakipean erregistratutako polizia-jardueraren kopia bat gehituta.

2º En relación con la documentación remitida, interesar de la Sra. Alcaldesa del Ayuntamiento de Getxo la remisión de una copia del atestado policial nº 1682/2025, con inclusión de una copia de la actuación policial registrada con referencia num. CC7876278.

3º. Getxoko udaltzainburuari eskatu nahi diogu Batzorde honi jakinarazteko Udaltzaingoak eremu publikoetan herritarrek atxilotzeari buruzko jardunbide egokien protokolorik edo eskulibururik ote duen. Erantzuna baiezkota bada, protokolo horren ale bat bidaliko digu.

3º Interesar de la jefatura de la Policía Local de Getxo que se informe a esta Comisión sobre si la misma dispone de un protocolo o manual de buenas prácticas para proceder en la detención de personas en espacios públicos. Con remisión, en caso afirmativo, de un ejemplar de dicho protocolo.

4º.- Getxoko udaltzainburuari eskatu nahi diogu Batzorde honi eginbide penalik hasi ote den esateko jakinarazitako gertakarietan esku hartu zuten udaltzainek (171 eta 270 identifikazio-zenbakidunek) burututako jardueraren ondorioz. Horrelakorik balego, horiek izapidetzen ari diren epaitegia zein den jakinarazi behar digu.

4º Interesar de la jefatura de la Policía Local de Getxo que se informe a esta Comisión sobre si la actuación de los Agentes intervinientes en el incidente comunicado a esta Comisión, con número de identificación 171 y 270, ha dado lugar a la incoación de diligencias penales, con indicación, en este caso, del juzgado que se encuentre instruyéndolas.

5º.- Getxoko udaltzainburuari eskatu nahi diogu Batzorde honi informazio edo diziiplina arloko prozedura administratiborik hasi ote den esateko jakinarazitako gertakarietan esku hartu zuten udaltzainek (171 eta 270 identifikazio-zenbakidunek) burututako jardueraren ondorioz. Horrelakorik balego, horien signatura eta izapidearen egoera adierazi behar dizkigu."

5º Interesar de la jefatura de la Policía Local de Getxo que se informe a esta Comisión sobre si la actuación de los Agentes intervinientes en el incidente comunicado a esta Comisión, con número de identificación 171 y 270, ha dado lugar a la incoación de procedimiento administrativo informativo o disciplinario, con indicación, en este caso, de su signatura y estado de tramitación."

Eta horrela jasota gera dadin, Batzordeko idazkariak ZIURTAGIRI hau egin du, sinadura digitalean adierazitako egunean

Y, para que así conste se expide la presente CERTIFICACIÓN, por el Secretario de la Comisión, en la fecha indicada en la firma digital..